

Dabid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

Oiloen kakara

La Sexta kateko dokumentala: *Human Journey*. Ingelesez, gaztelaniazko azpitu-tuluekin. Gizakia munduan barrena nola zabaldu omen zen azaltzen ari dira, eta Siberiako etnia baten inguru-ko erreportajea egin dute horretarako. Ikerlariek eta adituek ingelesez egiten dute, eta azpituduluetan esandakoa gaztelaniaz eman dute. Etnia jakin horren mintzoa entzuten denean, azpituduluetan “*hablan en su idioma*” jartzen du, besterik gabe. Eta, honatx ustekabea, inguruan aztarrika dabil-tzan oiloen hotsa entzuten denean, “*las galli-nas cacarean*” agertzen da telebista-ren azpiko aldean. Benetan, ez da txantxa.

Xelebrea kontua. Ondorio bat edo beste ateratzen saiatu naiz.

A) Siberiako nomada horien hiz-kuntzak, ziur asko, izena izanen du, munduko hizkuntza gehien-gehienek hala baitute. Dokumenta-la azpitudulatu zuenari, ordea, bestela espero edo nahi genuen arren, ez zitzaion garrantzi handi-ko kontua irudituko, ez baitzuen horren berririk eman, eta “*su idio-ma*” triste samar batekin aurkeztu zigun.

B) Oiloen jardunak, berriz, eta hori ere espero genuenaren kontra, uste baino garrantzi handiagoa zuen azpituduluen ardu-radunaren ustez. Izan ere, oiloak zertan ari ziren nabarmendu eta irudien gainean idaz-



KARLOS CORBELLA

tea erabaki baitzuen. Oiloak kakara egiten ari ziren, eta, nonbait, dokumentalaren harirako garrantzitsua behar zuen horrek. Lastima ez zigula oiloen jarduna itzuli.

c) Komunikazioari dagokionez, katego-ria ezberdinak agertu zitzaizkigun: alde batetik hizkuntzak: ingelesa eta gaztelania, biak ere goren mailan. Bestetik “*su idioma*” delako hori, izen jakinik gabea, eta itzul-tzeko lanik merezi ez zuena. Eta azkenik oiloen kakara edo garranga. Zalantzak, hiruen arteko distantziaren eta kokapena-ren inguruan sortu zitzaizkidan. Azpitu-tuak jarri zituen horren begietan,

zein da Siberiako herritar horien hizkuntzatik hurbilen dagoena? Ingelesa eta gaztelania, edo oiloen kakara? Izan ere, eta hizkuntza aniztasuna eta hiztunen eskubi-deak indartzen ari diren balioak direla pentsatu nahi dugun arren, gauzak oso bestelakoak direla ematen du batzuetan.

Oiloen hizkuntza-eskubideen inguruko hausnarketarik ez dut inoiz egin, eta ez dakit zer esan.

Agian gailu elektronikoetako hiz-kuntza-aukeretan oiloaren kakara, astoaren arrantza eta zakurraren zaunka ere erantsi beharko dira. Baina garbi dagoena da bade-la garaia nagusi ez diren hizkuntzen eta herrien izatea errespetu eta estimu handi-xeagoz tratatzeko. ■




Garbi dago badela garaia
nagusi ez diren hizkuntzen eta
herrien izatea errespetu eta
estimatu handixeagoz tratatzeko



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ez espainolez. Herrazko aku-sazioak ukatuz *Euskaldunon Egunkariaren* aurkakoak zuri-tu egin ditu tribunalak, orain arte epaitu lagunak libre utziz. Hala ere, hau ez da buka-tu, galdetu bestela dozenaka urteko kartzelaldia ezpata kolpea noiz emango dieten zain dauden beste lagunei. Eguna sortu aitzin zientoka guardia zibil zure mundua den lantokia eta etxea bortxaz hartzen dizkizute zureak eta zu bereziki zanpatuz, umiliatuz, eta beren izu-etxera arrastaka eramaten zaituzte burua kaputxaz estaltzen dizutela deus ikus ez dezazun, inork zure begitarteko izua ikus ez dezan. Han, masakratzen zaituzte zure ama

No

ere ukatzerainoko beldurrak hartu zai-tuela, munduratu zintuzten eguna madarikatzen duzula. Infernua igaro eta purgatoriora, kartzelara preso. Hil bitartean aban-donatuko ez zaituen esturaren ukendua duzu ziega. Lantokia duzun bizibide eta zeru-lurra ebatsi eta des-egiten dizute zerua mundutik hara dutenek, mundu honetako zerutiarrak etsai dituztenek. Zazpi urtez ezin bizian zaituzte, kajero automatikora ere beste norbaiten izenean jo behar duzula. Orain, NO aitortzen dizute, erraturik zeudela onartzen dizute, penitentzia ororen latza zure eta zureen bizkar uzten dizutela. Beraiena, beste munduan kitatuko omen. ■